



Hondarribiko Udala

Bordari eta Satarka Literatur Lehiaketa

XEDEA:

Hondarribiko Udalak euskararen erabilera bultzatu, idazle berriak sortu, idazteko zaletasuna eta literatur sorkuntza suspertzeko asmoz Bordari eta Satarka Literatur Lehiaketa antolatu du, aukeratutako lanen egileak sarituz, oinarri hauen arabera:

OINARRIAK

Lehiaketa honek bi sari-atal ditu, Bordari ipuin saria eta Satarka olerki saria. Parte hartzeko ondoko baldintzak bete beharko dira:

1. Lanek euskaraz idatziak, argitaratu gabeak eta beste inon saritu gabeak izan beharko dute.

Bi sari-atal izango ditu lehiaketa honek:

“Bordari” saria

Maila: Ipuina

1. Ipuinak 3 folio izango ditu gutxienez eta 10 gehienez, Arial 12 formatuan eta tarte bikoitzean idatzia.

2. Hiru sari izango dira:

Lehen saria: 800 € eta oroigarria

Bigarren saria: 400 € eta oroigarria

Hondarribia saria: 400 € eta oroigarria

Oharra: 300 €tik gorako sariei % 21 kenduko zaie P.F.E.Z.rako

“Satarka” saria

Maila: Olerkia

1. Olerkiak 50 lerro izango ditu gutxienez eta 150 gehienez, Arial 12 formatuan eta tarte bikoitzean idatzia.

2. Hiru sari izango dira:

Lehen saria: 800 € eta oroigarria

Bigarren saria: 400 € eta oroigarria

Hondarribia saria: 400 € eta oroigarria

Oharra: 300 €tik gorako sariei % 21 kenduko zaie P.F.E.Z.rako.

2. **Gaia librea izango da.** Lanak orriaren alde batean bakarrik idatziko dira, ordenagailuz eta tarte bikoitza utzita, Arial 12 formatuan. Lanen neurriak, baldintza hauen bukaeran adierazten direnak izango dira.

Lehiakide bakoitzak gehienez lan bat aurkez dezake guztira eta idazle bakoitzak ezin izango du sari bat baino gehiago jaso.

Hondarribia saria Hondarribian jaioa edota bertako biztanlea denarentzat izango da.

3. **Aurkezteko modua:**

Lan bakoitzaren lehen orrialdean datu hauek adierazi beharko ditu egileak:

- Zein sari-ataletan aurkezten duen lana (Bordari ala Satarka)
- Lanaren titulua.
- Egilearen izenordea.
- Egilea Hondarribian jaioa edota bertako biztanlea den.
- Lan bakoitzeko LAU kopia aurkeztuko dira.

4. **Epaimahaia Hondarribiko Udalak izendatuko du.**

Hondarribiko Udalak izendatutako epaimahaia ebatziko du lehiaketa eta epaimahaikoen erabakia aldaezina izango da, eta egoki irudituz gero, eman gabe ere utzi litezke sariak kalitaterik ez dutela irizten badio. Epaimahaiari sartutako orduen arabera ordainduko zaie.

Epaimahaiko idazkaria Hondarribiko Udaleko euskara teknikaria izango da eta ez du botorik edukiko.

Epaimahaia ondoko hauek osatuko dute:

- Hondarribiko Udaleko euskarako zinegotzia edo berak izendatutako ordezkaria.
- Euskarako teknikaria edo berak izendatutako ordezkaria.
- Literaturgintzaren arloko lau pertsona: Bi - Bordari sari-atalerako eta beste bi Satarka sari-atalerako.

Epaimahaiaren erabakia ekitaldi publiko batean jakinaraziko da. Jendeari ekitaldiaren eguna, tokia eta data, jakinaraziko zaizkio, udalak berak abisuak emateko erabiltzen dituen hedabideen bidez, eta hautagaiei ere jakinaraziko zaie modu zuzenago batean.

5. **Epaimahaia eta kalifikazio irizpideak**

Idazlan onenak aukeratzeko, ondoko irizpideak izango ditu kontuan epaimahaia:

- Irudimena eta sormena
- Testuaren ezaugarri literarioak
- Testuaren arintasuna eta koherentzia/kohesioa
- Hizkuntzaren erabilera zuzena eta aberastasuna
- Balio ez sexistak eta ez diskriminatzaileak
- defendatzea eta gizezko eta emakumezkoen estereotipoak haustea.

6. **Lanak bidaltzeko epea eta modua: posta arruntaz, telematikoki edo BAZen bertan.** Ekainaren 1ean hasi eta irailaren 15ean amaituko da. Ordurako Hondarribiko Udaleko BAZen (Biztanleen Arreta Zerbitzuan, Javier Ugarte 6) sarrera erregistroarekin, edo Hondarribiko Udalaren web orriko sarrera erregistroaren bidez edota postetxean sartuak egon beharko dute.

a. **Posta arruntaz** egiten bada, idazlanak izenburua eta egilearen goitizena eramango du agerian eta idazlearen izena ezin izango da inon aipatu. Gutun-azal itxi baten gainean lanaren titulua eta egilearen izenordea idatziko dira, eta barruan egilearen izen-deiturak, adina, helbidea, telefonoa, eta nortasun-agiriaren kopia. **Helbide honetara** bidali beharko dira.

Hondarribiko Udala, BAZ, Euskara Saila, Bordari-Satarka Literatur Lehiaketa, Javier Ugarte 6 20.280, Hondarribia, Gipuzkoa

b. **Telematikoki** egiten bada, Hondarribiko Udalaren web orrian, BAZeko Sarrera Erregistro Elektronikoaren bitartez (<http://www.hondarribia.eus/eu/baz>) aurkeztuz gero, lana

fitxategi batean bidaliko da “lana” izenarekin.

Egilearen izen-abizenak, telefonoa, helbide elektronikoa eta NAN agiriaren kopia jasotzen duen “egilea” izena duen beste fitxategi batean. Epaimahaiko idazkariak izango du lan irabazleak ebatzi arte datuok gordetzeko ardura.

c. **BAZen bertan**, sarrera erregistroa emanaz.

7. **Hondarribiko Udalak antolatu duen lehiaketan saritutako lanak Hondarribiko Udalaren esku geratuko dira**, eta Udalarena izango da lan horiek erakutsi eta argitaratzeko eskubidea urtebetez, egilearen izena adieraziz. Lan hauek prentsa idatzian, ohiko argitalpen modura edota Internet sarean eman ahal izango ditu ezagutzera. Egileek ez dute jabetza eskubiderik jasoko. Saririk jasotzen ez duten lanak Hondarribiko Udaleko Euskara Sailean jaso ahal izango dira 15 egunetz sari banaketa egiten denetik. Epe horren ondoren egileek ezingo dute lanik berreskuratu. Zernahi gertaturik ere, sariketako partaideek ontzat emango dute Udalaren erabakia.

8. **Saritutakoek bi asteko epean lana ordenagailuz Hondarribiko Udaleko Euskara Zerbitzuko helbide elektronikora bidali beharko dute Word formatuan, hau da euskara@hondarribia.eus helbidera.** Era berean, edo posta arruntaz banketxe edo aurrezki-kutxak emandako agiria, urte horretan kontuaren titularra bera dela egiaztatzen duena. (*Hondarribiko Udala, BAZ, Euskara Zerbitzua, Javier Ugarte 6, Hondarribia 20.280*) helbidera bidali beharko da.

9. **Lehiaketa honetan parte hartzeak berekin darama honako oinarri hauek onartzea.**